

<p><b>BASES PROCESO DE SELECCIÓN DE PERSONAL PARA LA CONSTITUCIÓN DE UNA RELACIÓN DE ASPIRANTES AL DESEMPEÑO, MEDIANTE CONTRATACIÓN TEMPORAL DEL PUESTO DE TRABAJO DE SOCORRISTA DIRIGIDAS CON DESTINO A LA EMPRESA PÚBLICA BERRIKILAN, S.L.</b></p> <p><b>BASES</b></p>	<p><b>BERRIKILAN, S.L. ENPRESA PUBLIKOARI ZUZENDUTAKO SOROSLE LANPOSTUA ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAREN BIDEZ BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA OSATZEKO LANGILEAK HAUTATZEKO PROZESUAREN OINARRIAK</b></p> <p><b>OINARRIAK</b></p>
<p><b>1._ NORMAS GENERALES</b></p>	<p><b>1._ ARAUDI OROKORRA</b></p>
<p>1.1.-El objeto de la presente convocatoria es la constitución de una relación de aspirantes a la contratación temporal de los puestos de trabajo de servicios generales, dirigidas con destino a la empresa pública Berrikilan, S.L., con el fin de dar cobertura temporal a las necesidades que se produzcan.</p> <p>Las listas de aspirantes serán constituidas mediante pruebas selectivas realizadas y aprobadas entre los aspirantes que reúnan los requisitos exigidos para el puesto de trabajo de que se trate y de acuerdo con el orden de puntuación obtenida en las correspondientes pruebas selectivas.</p> <p>Las listas se utilizarán para las sustituciones eventuales por bajas laborales, vacaciones, licencias, permisos, necesidad de reforzar puntualmente el servicio etc., para lo que en ese supuesto se adecuará la contratación al puesto de trabajo de que se trate.</p> <p>Esta relación de aspirantes a la contratación temporal, tendrá una vigencia hasta el 30 de mayo de 2026, y tendrá carácter subsidiario respecto de cualquier otra relación de empleados fijos, existente o que se pueda constituir en el futuro.</p> <p>El régimen de jornada de trabajo se adaptará en todo momento a las necesidades del servicio, pudiendo ser modificado en cualquier momento por los órganos competentes cuando las necesidades del servicio así lo requieran.</p> <p>1.2.- Las retribuciones, jornada, horario, vacaciones, licencias y demás condiciones laborales serán las establecidas en el Convenio Colectivo de la Empresa Berrikilan vigente a la fecha.</p> <p>1.3. De acuerdo con lo establecido en el Convenio, el puesto de trabajo objeto de la convocatoria se clasifican en los siguientes niveles funcionales:</p> <p><b>Socorrista:</b> Clasificado en el grupo 4 del Convenio, siendo las funciones específicas del puesto:</p> <p>- Las referentes a la vigilancia de piscinas regulada en</p>	<p>1.1.- Deialdi honen xedea da Berrikilan SL enpresa publikoari zuzendutako zerbitzu orokorretako lanpostuak aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrenda eratzea, sortzen diren beharrak aldi baterako betetzeko.</p> <p>Izangaien zerrendak kasuan kasuko lanposturako eskatutako baldintzak betetzen dituzten hautagaien artean egindako eta gaiditutako hautaprobek bidez osatuko dira, dagozkien hautaprobetan lortutako puntuazio-ordenaren arabera.</p> <p>Zerrendak laneko bajengatik, oporrengatik, lizentziengatik, baimenengatik, zerbitzua unean-unean indartzeko beharragatik eta abarengatik ordezkapenak egiteko erabiliko dira. Kasu horretan, kontratazioa dagokion lanpostura egokituko da.</p> <p>Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda honek 2026ko maiatzaren 30era arteko indarraldia izango du, eta izaera subsidiarioa izango du langile finkoen beste edozein zerrendarekiko, lehendik dagoena edo etorkizunean eratu daitekeena.</p> <p>Lanaldiaren araubidea zerbitzuaren beharretara egokituko da une oro, eta organo eskudunek edozein unetan aldatu ahal izango dute, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean.</p> <p>1.2.- Ordainsariak, lanaldia, ordutegia, oporrak, lizentziak eta gainerako lan-baldintzak egun indarrean dagoen Berrikilan Enpresaren Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoak izango dira.</p> <p>1.3. Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, deialdiaren xede den lanpostua honako maila funtzional hauetan sailkatzen da:</p> <p><b>Soroslea:</b> Hitzarmeneko 4. taldean sailkatuta dago, eta lanpostuaren eginkizun espezifikoak honako hauek dira:</p> <p>- 86/2018 Foru Dekretuan araututako igerilekuen</p>
<p>C/ Cendea de Ansoain,2 31013 Berriozar (Navarra)</p>	<p>1</p> <p>Antsoain Zendearen kalea, 2 31013 Berriozar (Nafarroa)</p>
<p>Tfno(a) 948 301 719 - Fax(a) 948 309 434 - <a href="http://www.polideportivoberriozar.es">www.polideportivoberriozar.es</a> - <a href="mailto:poliberriozar@berrikilan.es">poliberriozar@berrikilan.es</a></p>	

<p>el Decreto Foral 86/2018.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Elaboración de analíticas de control rutinario y diario de agua de los vasos.</li><li>- Apoyo en tareas de mantenimiento a personal de servicios generales en campaña de verano.</li><li>-Otros trabajos propios de su categoría profesional.</li></ul> <p>1.4.- La persona contratada será dada de alta y afiliada al Régimen General de la Seguridad Social siendo, por tanto, de su cargo la cuota correspondiente, así como la retención el I.R.P.F. en las cuantías que procedan.</p> <p>1.5.- Las contrataciones tendrán el periodo de prueba establecido en el Convenio vigente a la fecha, de Berrikilan S.L.</p> <p>1.6.- La lista que se confeccione servirá para dar cobertura a las necesidades que surjan.</p>	<p>zaintzari buruzkoak.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Ontzietako uraren eguneroko eta ohiko kontroleko analisiak egitea.</li><li>- Udako kanpainen zerbitzu orokorretako langileei mantentze-lanetan laguntzea.</li><li>- Bere lanbide-kategoriari dagozkion beste lan batzuk.</li></ul> <p>1.4.- Kontrataturako pertsonari alta emango zaio eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuko da. Beraz, dagozkion kuota bere kargura izango da, bai eta PFEZ atxikitzea ere, dagozkion zenbatekoetan.</p> <p>1.5.- Kontratazioek egun indarrean dagoen Berrikilan SL enpresaren Hitzarmenean ezarritako probaldia izango dute.</p> <p>1.6.- Sortuko diren beharrei erantzuteko balioko du osatuko den zerrendak.</p>
<p><b>2._REQUISITOS DE LAS PERSONAS ASPIRANTES.</b></p>	<p><b>2._ HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.</b></p>
<p>2.1.-Para ser admitidos/as a la presente convocatoria, las personas aspirantes deberán reunir en la fecha en que termine el plazo de presentación de solicitudes, los siguientes requisitos:</p> <p>a) <b>Edad:</b> Tener cumplidos dieciocho años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.</p> <p>c) <b>Titulación:</b> En cuanto a titulaciones, las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos:</p> <p><b>Socorrista:</b></p> <p>Titulación específica de socorrista de piscinas según recoge el Decreto Foral 86/2018, vigente en el año 2024 y todas aquellas otras titulaciones que valide o convalide el Instituto de Salud Pública de Navarra en sus campañas de temporada.</p> <p>En su defecto, certificado de estar actualmente en periodo de formación o acreditación profesional.</p> <p>2.2.-Los anteriores requisitos deberán ser acreditados por el/la aspirante seleccionado/a bien en el plazo y forma previstos en la base tercera de la presente convocatoria, o en su defecto, en el momento de la contratación.</p>	<p>2.1.- Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:</p> <p>a)<b>Adina:</b> hemezortzi urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.</p> <p>c)<b>Titulazioa:</b> Titulazioei dagokienez, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:</p> <p><b>Soroslea:</b></p> <p>Igerilekuetako soroslearen titulazio espezifikoa, 86/2018 Foru Dekretuak, 2024an indarrean dagoenak, eta Nafarroako Osasun Publikoko Institutuak sasoiko kanpainen onartu edo baliozkotzen dituen beste titulazio guztiek jasotzen dutenaren arabera.</p> <p>Halakorik ezean, gaur egun prestakuntza-aldian edo lanbide-akreditazioan dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.</p> <p>2.2.- Hautaturako izangaiak egiaztatu beharko ditu aurreko betekizun horiek, deialdi honen hirugarren oinarrian aurreikusitako epean eta moduan, edo, bestela, kontratazioaren uean.</p>
<p><b>3. PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES</b></p>	<p><b>3._ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA</b></p>

<p>3.1.-El procedimiento de selección se regirá por principios de transparencia.</p> <p>3.2.-Las personas interesadas deberán presentar su solicitud en la recepción del Polideportivo de Berriozar, Calle Cendea de Ansoain, 2.</p> <p>El plazo se extenderá desde el día 5 de ABRIL de 2024 hasta el día 19 de ABRIL de 2024, ambos inclusive, en horario presencial de 8:30 a 14 horas, o por mail en la siguiente dirección: <a href="mailto:web@berrikilan.es">web@berrikilan.es</a>.</p> <p>3.3.- Las personas interesadas deberán entregar cumplimentada la correspondiente solicitud que se adjunta a la presente convocatoria como Anexo I, en la solicitud se deberá indicar marcando la casilla correspondiente:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Si se presenta certificación oficial de euskera.</li><li>• Si se presentan otras titulaciones complementarias.</li></ul> <p>A la instancia deberá acompañarse:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.</li><li>• Copia de la titulación exigida para el puesto.</li><li>• Otras formaciones complementarias, todas ellas en un documento único en formato pdf.</li><li>• Certificación oficial de euskera, en su caso.</li></ul>	<p>3.1.-Hautaketa-prozedura gardentasun-printzipioen arabera arautuko da.</p> <p>3.2.-Interesdunek Berriozarko kiroldegiko harreran aurkeztu beharko dute eskabidea (Antsoaingo Zendea kalea, 2).</p> <p>Epea 2024ko APIRILAREN 5etik 19ra arte luzatuko da, biak barne, aurrez aurre 08:30etik 14:00etara, edo posta elektronikoz honako helbide honetan: <a href="mailto:web@berrikilan.es">web@berrikilan.es</a></p> <p>3.3.- Interesdunek deialdi honi I. eranskin gisa erantsi zaion eskabidea beteta aurkeztu beharko dute. Eskabidean, dagokion laukia markatu beharko da:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen ziurtagiri ofiziala aurkezten bada.</li><li>• Beste titulazio osagarri batzuk aurkezten badira.</li></ul> <p>Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.</li><li>• Lanposturako eskatzen den titulazioaren kopia.</li><li>• Beste prestakuntza osagarri batzuk, guztiak dokumentu bakar batean, pdf formatuan.</li><li>• Euskara gaitasunaren ziurtagiri ofiziala, hala badagokio.</li></ul>
<p><b>4._ ADMISIÓN DE ASPIRANTES Y TRIBUNAL CALIFICADOR</b></p>	<p><b>4._ IZANGAIEN ONARPENA ETA EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA</b></p>
<p>4.1. Terminado el plazo de presentación de instancias, el Presidente del Tribunal, aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas que se publicará en el tablón de anuncios de Berrikilan ubicada en el Polideportivo y en la web de la empresa: <a href="http://www.polideportivoberriozar.es">www.polideportivoberriozar.es</a> En caso de no haber personas excluidas se aprobará directamente la relación de admitidas como definitiva.</p> <p>4.2. Las personas aspirantes excluidas, dentro de los 3 días hábiles siguientes a la publicación en el tablón y en la web de la lista provisional podrán formular reclamaciones y subsanar, en su caso, los defectos en que pudieran haber incurrido.</p> <p>4.3. Transcurrido el plazo de reclamaciones y una vez resueltas éstas, el Presidente del Tribunal aprobará la lista definitiva de personas admitidas y excluidas, junto con la fecha y lugar de realización de la prueba de selección prevista en la convocatoria y la relación de las personas que formarán el tribunal calificador;</p>	<p>4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, epaimahaiburuak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori Berrikilaren kiroldegiko iragarki-taulan eta enpresaren webgunean (<a href="http://www.polideportivoberriozar.es">www.polideportivoberriozar.es</a>) argitaratuko da. Baztertutako pertsonarik ez badago, zuzenean onartuko da behin betiko onartutakoen zerrenda.</p> <p>4.2. Baztertutako izangaiak erreklamazioak aurkeztu eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, behin-behineko zerrenda iragarki-oholean eta webgunean argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunetan.</p> <p>4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiburuak onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onartuko du, deialdian aurreikusitako hautaketa-proba egiteko eguna eta lekua eta epaimahaia osatuko duten pertsonen zerrenda;</p>
<p>C/ Cendea de Ansoain,2 31013 Berriozar (Navarra)</p>	<p>3</p> <p>Antsoain Zendearen kalea, 2 31013 Berriozar (Nafarroa)</p>
<p>Tfno(a) 948 301 719 - Fax(a) 948 309 434 - <a href="http://www.polideportivoberriozar.es">www.polideportivoberriozar.es</a> - <a href="mailto:poliberriozar@berrikilan.es">poliberriozar@berrikilan.es</a></p>	

publicándose la información tablón de anuncios de Berrikilan ubicada en el Polideportivo y en la web de la empresa: [www.polideportivoberriozar.es](http://www.polideportivoberriozar.es)

4.4. Con la publicación de la lista de personas admitidas y excluidas en la página web de Berrikilan: [www.polideportivoberriozar.es](http://www.polideportivoberriozar.es), se considerará efectuada la correspondiente notificación a los efectos legales procedentes.

4.5.-El Tribunal será nombrado por el Presidente de Berrikilan que juzgará la oposición y estará constituido por los siguientes miembros:

- o **Presidente:** D. Félix Puyo Rebollo, Presidente de Berrikilan o la persona designada por éste.
- o **1º Vocal:** Dña. Bidane Zabalza, responsable de recursos humanos del Ayuntamiento de Berriozar
- o **2º Vocal:** D. Asier Uriarte, técnico municipal de deportes del Ayuntamiento de Berriozar.
- o **3º Vocal:** Dña Maider Villava González, representante de los trabajadores y trabajadoras de Berrikilan S.L.
- o **4º Vocal Secretario:** D. Oscar Lasaos Lizarazu, Gerente de Berrikilan.

4.6.-El Tribunal deberá constituirse antes de las pruebas selectivas, siendo necesario para su válida constitución y actuación la asistencia de, al menos, la mayoría de sus miembros.

Así mismo, para la válida constitución y actuaciones del Tribunal se requerirá la presencia del Presidente y del Secretario/a o, en su caso, de quienes les sustituyan.

4.7.-El Presidente del Tribunal coordinará la realización de las pruebas. Todos los miembros del tribunal tendrán voz y voto.

4.8.-El Tribunal resolverá por mayoría todas las cuestiones que puedan plantearse en relación con la interpretación y aplicación de las bases de la convocatoria.

4.9.-El Tribunal podrá incorporar asesores especialistas para todas o algunas de las pruebas. Dichos asesores colaborarán con el órgano de selección exclusivamente en el ejercicio de sus especialidades técnicas y tendrán voz pero no voto.

Las presentes bases se interpretarán en el sentido finalista que mejor garantice la preservación de los principios de igualdad, mérito y capacidad.

Berrikilanen iragarki-taulari buruzko informazioa kiroldegian eta enpresaren webgunean argitaratuko da: [www.polideportivoberriozar.es](http://www.polideportivoberriozar.es)

4.4. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda Berrikilanen web-orrian argitaratuta ([www.polideportivoberriozar.es](http://www.polideportivoberriozar.es)), jakinarazpena egintzat joko da legezko ondorioetarako.

4.5.- Epaimahaia Berrikilaneko lehendakariak izendatuko du, eta hark epaituko du oposizioa. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

- o **Lehendakaria:** Félix Puyo Rebollo jauna, Berrikilaneko lehendakaria edo hark izendatutako pertsona.
- o **1. mahaikidea:** Bidane Zabalza, Berriozarko Udaleko giza baliabideen arduraduna
- o **2. mahaikidea:** Asier Uriarte jauna, Berriozarko Udaleko kirol teknikaria.
- o **3. mahaikidea:** Maider Villava González andrea, Berrikilan SL enpresako langileen ordezkaria.
- o **4. mahaikide-idazkaria:** Oscar Lasaos Lizarazu jauna, Berrikilaneko gerentea.

4.6.- Epaimahaia hautaprobak egin baino lehen eratu beharko da, eta epaimahaia balio osoz eratzeko eta jarduteko, gutxienez epaimahaikideen gehiengoa bertaratu beharko da.

Era berean, Epaimahaiaren eraketa eta jarduketak baliozkoak izan daitezzen, Lehendakaria eta Idazkaria edo, hala badagokio, horien ordezkariak bertaratu beharko dira.

4.7.- Lehendakariak koordinatuko ditu probak. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

4.8.- Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen arazo guztiak.

4.9.- Epaimahaiak aholkulari espezialistak izan ditzake proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek hautaketa-organoarekin lankidetzan jardungo dute beren espezialitate teknikoetan bakarrik, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

Oinarri hauek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen babesa hobekien bermatzen duen zentzu finalistan interpretatuko dira.

5.- PRUEBA DE SELECCIÓN	5.- HAUTAKETA PROBA
<p><b>5.1.- Fase de realización de la prueba: 60 puntos</b></p> <p>Consistirá en dar respuesta a un cuestionario de preguntas tipo test, cuyas preguntas guardarán relación con las funciones a desarrollar en el puesto de trabajo objeto de la convocatoria.</p> <p>Tendrá una puntuación máxima de 60 puntos. Cada pregunta correcta será puntuada con 3 puntos y cada respuesta incorrecta penalizará con 0.5 puntos.</p> <p><b>5.2.-La convocatoria para el ejercicio será mediante llamamiento único, debiendo Las personas aspirantes acudir provistos del Documento Nacional de Identidad u otro documento de identificación que el Tribunal considere suficiente, quedando excluidas del proceso aquellas personas que no comparezcan o no acrediten su personalidad mediante alguno de los documentos mencionados.</b></p> <p><b>5.3. Fase valoración de méritos: 40 puntos.</b></p> <p>Se valorarán los méritos presentados por las aspirantes en base al Anexo II de esta convocatoria.</p> <p>El resultado no será excluyente y supondrá un máximo de 40 puntos.</p> <p>Los méritos deberán ser alegados y probados documentalmete por las personas aspirantes en el momento de presentación de la solicitud de participación en la convocatoria, con documentos originales y/o debidamente firmados y con fechas de inicio y final que determinen claramente el periodo al que se refieren, teniéndose por no aportados en caso contrario.</p> <p>Bastará con copias simples de la documentación, si bien, la inexactitud o falsedad de los datos o documentos aportados conllevará la exigencia de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiere lugar.</p> <p>Aquellas personas aspirantes que deseen aportar titulaciones deberán señalarlo en la instancia. Si señalan la casilla de presentación de títulos, deberán adjuntar copia compulsada de los títulos a la instancia.</p>	<p><b>5.1. Proba egiteko fasea: 60 puntu</b></p> <p>Test motako galdera-sorta bati erantzutea izango da. Galdera-sortak deialdiaren xede den lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zerikusia izango du.</p> <p>Gehienez 60 puntu lortuko ditu. Galdera zuzen bakoitzari 3 puntu emango zaizkio, eta erantzun oker bakoitzak 0.5 puntu kendu.</p> <p><b>5.2.- Ariketarako deialdia deialdi bakarraren bidez egingo da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiriren bat eraman beharko dute, eta prozesutik kanpo geratuko dira aipatutako agiriren baten bidez agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten pertsonak.</b></p> <p><b>5.3. Merezimenduak baloratzeko fasea: 40 puntu.</b></p> <p>Izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratuko dira, deialdi honen II. eranskinean oinarrituta.</p> <p>Emaizta ez da baztertzaileria izango, eta gehienez 40 puntu emango dira.</p> <p>Merezimenduak alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dituzte izangaiek deialdian parte hartzeko eskabidea aurkezten duten unean, jatorrizko eta/edo behar bezala sinatutako dokumentuekin eta hasierako eta amaierako datekin, eta argi eta garbi zehaztuko dute zein epetan egin behar diren. Bestela, aurkeztu ez direla ulertuko da.</p> <p>Nahikoa izango da dokumentazioaren kopia sinpleekin; hala ere, aurkeztutako datuak edo dokumentuak zehatzak ez badira edo faltsuak badira, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.</p> <p>Titulazioak aurkeztu nahi dituzten hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute. Tituluak aurkezteko laukitxoak adierazten badute, tituluaren kopia konpultsatua erantsi beharko diote eskabideari.</p>
<p><b>6. RELACION DE APROBADAS/OS Y LLAMAMIENTO</b></p>	<p><b>6._ONARTUEN ZERRENDA ETA DEIALDIA</b></p>
<p>6.1.-Terminada la calificación de la prueba, el Tribunal hará pública en el tablón de anuncios de Berrikilan ubicada en el Polideportivo de Berriozar y en la web de</p>	<p>6.1.- Proba kalifikatu ondoren, epaimahaiak Berrikilanan iragarki-taulan (Berriozarko kiroldegian) eta webgunean (<a href="http://www.polideportivoberriozar.es">www.polideportivoberriozar.es</a>)</p>

la empresa: [www.polideportivoberriozar.es](http://www.polideportivoberriozar.es) la relación de personas aprobadas por orden de puntuación total obtenida.

6.2. Las personas aspirantes podrán ser llamados/as, por estricto orden de mayor a menor puntuación obtenida en las pruebas, de acuerdo con las necesidades que se produzcan, de conformidad con lo establecido en las bases de esta convocatoria.

6.3.-Las aspirantes que sean llamadas para su contratación, deberán presentar la documentación original acreditativa de que cumplen los requisitos establecidos en la base 2, en el plazo que se les señale en el momento de la contratación, así como el Certificado de Delitos Sexuales.

Las personas que no aporten la documentación requerida en el plazo establecido en el llamamiento, o no que cumplan con los requisitos establecidos en la base 2, serán automáticamente excluidos de la lista de contratación.

EL PRESIDENTE DEL TRIBUNAL

D. FELIX PUYO REBOLLO  
Presidente de Berrikilan, S.L.

argitaratuko du gainditutakoen zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

6.2. Izangaiei dei egin ahal izango zaie, probetan lortutako puntuazio handienetik txikienera, sortzen diren premien arabera, deialdi honen oinarrietan ezarritakoaren arabera.

6.3.- Kontratatzeko deitzen zaien izangaiek 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte, kontratazioaren unean adierazten zaien epean, bai eta Sexu Delituen Ziurtagiria ere.

Deialdian ezarritako epean eskatutako dokumentazioa aurkeztzen ez duten pertsonak edo 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak kontratazio-zerrendatik kanpo geratuko dira automatikoki.

EPAIMAHAIKO LEHENDAKARIA

FELIX PUYO REBOLLO jn.  
Berrikilan, S.L.ko lehendakaria

## ANEX ANEXO I

D/D <sup>a</sup> <i>jn./and.</i>		Doc. N <sup>o</sup> <i>Agiri zk.</i>
Domicilio. <i>Helbidea</i>		
Localidad <i>Herria</i>	C.P. <i>P.K.</i>	N <sup>o</sup> teléfono <i>Telefono zk.</i>
Correo electrónico <i>Helbide elektronikoa</i>		

Comparece y como mejor proceda

EXPONE:

Que, vista la convocatoria realizada por la empresa Berrikilan, S.L. para la constitución de una relación de aspirantes al desempeño, mediante contratación temporal del puesto de trabajo de socorrista:

- Cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en las bases de la presente convocatoria.
- Solicita ser admitido/a la citada convocatoria.

Presenta certificación oficial de euskera

Presenta otras titulaciones:

Zure aurrean agertu eta

AZALTZEN DUT:

Jakinik Berrikilan S.M. enpresak deialdia egin duela jarraian aipatzen den sorosle lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda osatzeko:

- Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, garaiz eta forman.
- Aipatutako deialdian onartua izatea eskatzen dudala.

Euskara ziurtagiri ofiziala aurkezten dudala:

Beste tituluak aurkezten ditu:

Berrioazar, (fecha / *data*) \_\_\_\_\_

(firma / *sinadura*)

**ANEXO I ANEXO II. ERANSKINA****A) Experiencia laboral. (Máximo 20 puntos)**

- Por cada año de servicio ininterrumpido de socorrismo: 20 puntos, prorrateándose los periodos de tiempo inferiores.
- Por cada temporada de verano (junio-septiembre o 3 meses de duración a jornada completa: 5 puntos. Máximo 20 puntos, prorrateándose los periodos de tiempo inferiores.
- Contratos temporales en instalaciones deportivas: 1 punto por contrato (mínimo 1 mes de duración), prorrateándose los periodos de tiempo inferiores. Máximo 10 puntos
- Contratos laborales vinculados a la formación presentada: 1 punto por mes trabajado. Máximo 10 puntos.

Los servicios prestados se acreditarán exclusivamente mediante certificados de la Administración Pública o de empresa en el que deberá constar expresamente la duración total de prestación de servicios con indicación del número total de días.

En los supuestos de prestación de servicios a tiempo parcial, además, deberá figurar:

- a) o bien el número de horas al día, a la semana, al mes o al año, y la jornada anual del año a que se refieren los servicios prestados;
- b) o bien el porcentaje que estos suponen respecto de la jornada habitual.
- c) Los servicios prestados a tiempo parcial se valorarán proporcionalmente a la jornada

Los servicios prestados a tiempo parcial se valorarán proporcionalmente a la jornada.

**B) Cursos de formación. (Máximo 10 puntos)**

- Por haber realizado programas o cursos de formación en socorrismo o primeros auxilios o similares: Por cada 10 horas de formación certificada: 2 puntos
- Por formación en grado universitario, grados superiores o medio de actividades físico-deportivas

**A) Lan-esperientzia. (20 puntu gehienez)**

- Sorosle lanpostu batean etenik gabe lan egindako urte bakoitzeko: 20 puntu, denbora laburragoko aldiak hainbanatuta.
- Lan egindako udako denboraldi bakoitzeko (edo lanaldi osoko 3 hilabete): 5 puntu. Gehienez 20 puntu, epe laburragoak hainbanatuta.
- Kirol-instalazioetako aldi baterako kontratuak: puntu 1 kontratu bakoitzeko (gutxienez hilabeteko iraupena), eta aldi laburragoak hainbanatu egingo dira. Gehienez 10 puntu
- Aurkeztutako prestakuntzari lotutako lan-kontratuak: puntu 1 lan egindako hilabete bakoitzeko. Gehienez 10 puntu.

Emandako zerbitzuak Administrazio Publikoaren edo enpresaren ziurtagirien bidez bakarrik egiaztatuko dira. Ziurtagiri horietan berariaz jaso beharko da zerbitzuak emateko guztizko iraupena, eta egun kopuru osoa adierazi beharko da.

Lanaldi partzialeko zerbitzuen kasuan, gainera, honako hauek agertu beharko dira:

- a) egunean, astean, hilean edo urtean zenbat ordu, eta emandako zerbitzuei dagokien urteko lanaldia;
- b) edo horiek ohiko lanaldiarekiko duten ehunekoa.
- c) Lanaldi partzian emandako zerbitzuak lanaldiaren proportzioan baloratuko dira.

Lanaldi partzian emandako zerbitzuak lanaldiaren proportzioan baloratuko dira.

**B) Prestakuntza-ikastaroak. (Gehienez 10 puntu)**

- Sorospenari edo lehen sorospenei buruzko prestakuntza-programak edo -ikastaroak edo antzekoak egiteagatik: Prestakuntza ziurtatuko 10 orduko: 2 puntu.
- Unibertsitate-graduak, goi-mailako edo erdi-mailako kirol-jarduera fisikoetako prestakuntzagatik



- Grado universitario: 10 puntos
- Grado superior: 8 puntos
- Grado medio: 5 puntos

- Por titulación oficial de monitorado o entrenador/a de natación:

- Nivel III: 10 puntos
- Nivel II: 8 puntos
- Nivel I: 5 puntos

- Por haber realizado formación en Igualdad, 1 punto por cada 10 horas de formación certificada, con un máximo de 2 puntos

**C) Conocimientos de euskera. (Máximo 10 puntos).**

- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel A1, según el marco de referencia europeo: 2,00 puntos.
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel A2, según el marco de referencia europeo: 2,00 puntos adicionales (4 puntos)
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel B1, según el marco de referencia europeo: 2,00 puntos adicionales (6 puntos)
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel B2 oral y B1 escrito, o superior, según el marco de referencia europeo: 2,00 puntos adicionales (8 puntos)
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel C1 oral y B2 escrito, o superior, según el marco de referencia europeo: 2,00 puntos adicionales (10 puntos)

En caso, de presentarse más de un título o certificado, el Tribunal sólo valorará el certificado o título aportado que acredite el nivel superior.

- Unibertsitate-gradua: 10 puntu
- Goi maila: 8 puntu
- Maila ertaina: 5 puntu

- Igeriketako monitorearen edo entrenatzailearen titulazio ofizialarengatik::

- III. maila: 10 puntu
- II. maila: 8 puntu
- I. maila: 5 puntu

- Berdintasunari buruzko prestakuntza egiteagatik, puntu 1 ziurtatutako 10 orduko, gehienez 2 punturekin.

**C) Euskararen ezagutza. (10 puntu gehienez).**

- A1 mailako Euskararen ezagutza ofizialki egiaztatzen duten erakundeek emandako ziurtagiria edo titulua izateagatik, Europako erreferentzia-esparruaren arabera: 2,00 puntu.
- A21 mailako Euskararen ezagutza ofizialki egiaztatzen duten erakundeek emandako ziurtagiria edo titulua izateagatik, Europako erreferentzia-esparruaren arabera: 2,00 puntu gehiago (4 puntu).
- B1 mailako Euskararen ezagutza ofizialki egiaztatzen duten erakundeek emandako ziurtagiria edo titulua izateagatik, Europako erreferentzia-esparruaren arabera: 2,00 puntu gehiago (6 puntu).
- Ahozko B2 mailako eta idatzizko B1 mailako edo goragoko euskararen ezagutza ofizialki egiaztatzen duten erakundeek emandako ziurtagiria edo titulua izateagatik, Europako erreferentzia-esparruaren arabera: 2,00 puntu gehiago (8 puntu).
- Ahozko C1 eta B2 mailako euskararen ezagutzari buruz ofizialki egiaztatutako erakundeek emandako ziurtagiria edo titulua edukitzeagatik, idatzia edo goragokoa, Europako erreferentzia-esparruaren arabera: 2,00 puntu gehiago (10 puntu).

Titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, epaimahaiak goragoko maila egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulua baino ez du baloratuko.